

# Tradizioaren definizio baterako oharra

*Pruden Gartzia*

Euskaltzain urgazlea

Badira hitz batzuk, kontzeptu batzuk, adigai batzuk nahiago bada, ezin direnak beren bakardadean definitu, baizik eta zentzua ematen dien beste batekin harremanetan. Adibide erraz bat jartzeagatik, hor dugu hotzaren kontzeptua: zer da *hotza*? Bistan da hotza, berez, ez dela existitzen, alegia, egiazki existitzen dena *beroa* da; hotza, aldiz, bero urritasuna baino ez da, handiagoa edo txikiagoa. Baina, hala ere, ez dago arazorik hitzetik hortzera hotzari buruz hitz egiteko. Eta zergatik egon beharko luke? Kontzeptu praktikoa da, eta ez dago arazorik erabiltzeko, baldin eta une oro garbi badugu, izan ohi dugun bezala, zer den egiazki hotza, zeintzuk diren kontzeptu horren inplikazioak.

Nire ustez, antzeko zerbaite gertatzen zaio *tradizio* kontzeptuari. Hau da, posible da tradizioaz hitzetik hortzera hitz egitea, baina une oro garbi eduki behar dugu zeintzuk diren adigai horren inplikazioak. Horra artikulu honen helburua.

Hari horretatik tiratuz tesi bat plazaratuko dut eta, jarraian, hura sustengatzeko argudio batzuk eman. Ez da nire helburua kontzeptu

berri baten aurkikundea aldarrikatzea; aitzitik, esango dudan guztia gauza arrunt jakina da, baina beharrezkoa iruditzen zait gogoratzea. Izan ere, nire uste apalean azken urteotan tradizioaren kontzeptu oker bat zabaldu da, adigai horren erabilera klasiko eta zuzenarekin zer ikusirik ez duena. Nire proposamena, aintzat hartua izanez gero, oker hori zuzentzera letorke.

### **Iraultza eta modernitatea**

Azken urteotan zabaldu den erabileraren arabera, tradizioa *modernitate* kontzeptuaren arabera ulertu behar da. Alegia, gorago jarri dugun adibideari segituz, modernitatea litzateke egiazki kontzeptu positiboa (hots, *beroa*) eta, aldiz, tradizioa, modernitate urritasuna baino ez litzateke, handiagoa edo txikiagoa, edo, baita ere, modernitatearen *aurrerakada* positiboaren aurrean paratzen den indar *atzera-koia* (gogoratu *hotz-beroaren* adibidea horixe besterik ez dela, adibide bat, ez literalki jarraitu beharreko kontzeptua). Edozein modutan, ikuskera honen arabera modernitatea da zinezko kontzeptu nagusia, eta tradizioa haren menpekkoa baino ez da, harengandik sortua edo deribatua.

Eta orain dator nire proposamenaren bihurgune nagusia, hots, orain agertu behar naiz, behiala Gabriel Aresti beti maitatuak egin zuenari segituz, Bizkaiko gizonik tontoena bezala, neuk ez baitakit, egiazki, zer den modernitatea. Hain da kontzeptu lausoa, lurruna bezala hedatzen zaigula begien aurrean edozein tenoretan eta edonolako testuingurutan, baina, lurruna bezala, hura besarkatzeko saio oro ezerezean geratzen da, hedatu zaigun bezain azkar aienatzen zaigularik ustez esku artean dugunean, ikutzen ari ginenean, hurrengo minutuan berriz ere apur bat haruntzatxoago hedatzen ikusteko... Baina hurbildu orduko, badoa. Zer da modernitatea? Sarritan, laino bat, euskal kulturaren arazoak argitzeko balio ez digun ameskeria.

Ondo ulertuko nuke irakurle arduratsu askok (guztiak?) puntu honetan artikulua honen irakurketa etetea. Izan ere, nork bere burua tonto eta ezjakintzat aurkeztea baliabide erretorikoa izan daiteke, gehienez ere, baina ez proposamen akademiko serioa. Baina, benetan, ez dut nire burua gai ikusten mila diziplina akademiko seriotan seriotasun osoz erabiltzen den kontzeptu ezin konplexuago baten azterketa kritikoari ekiteko, gutxiago hemen eta orain, txoko xume honetan. Traktatu luze bat beharko litzateke, ez pertsona bakun batek, baizik eta talde interdiziplinar oso batek egina, modernitatearen kontzeptua nork (edo nortzuek) sortua den, noiz, zein testuingurutan, halaber nork, noiz eta zein testuingurutan erabili duen... erabilera ezin ugariagoak baititu, hori bistan da, baina horixe da, hain juxtu ere, nire argudio nagusia: arrunki, modernitatea kontzeptu zabalegia eta zehazgabeegia da operatiboa (eraginkorra) izan ahal izateko, euskal kulturaren esparruan bederen. Zeren, esan gabe doa, artikulua honi dagokionez, tradizioaz eta modernitateaz ari garelarik, euskal kulturaren baranoan ari gara, ez beste ezertan. Eta, beraz, neuk hauxe diot, hauxe mahaigaineratzen dut: gehienetan modernitatearen kontzeptuak ez digu balio euskal kulturaren arazoak argitzeko, bereziki tradizioaren kontzeptuarekin lotuta daudenekin. Irakurle arduratsuaren gain dago proposamen hau besterik gabe, une batez baino ez bada ere, aintzat harturik irakurketarekin aurrera segitzea, edo, beste barik, bertan behera uztea.

Euskaldunen artean azken berrehun urtean tradizioaz hitz egin delarik, inplizitoki aipatzen zen arazoa, zinezko adigaia, gertakari sozial multzo bat izaten zen gogoan, argi eta garbi eta inolako zalan-tzarik gabe zerrendatu eta zedarritu daitezkeenak, eta ez teorizazio akademiko lauso bat. Euskaldunen artean tradizioaz hitz egiten zelarik, inplizituki, *iraultzaz* hitz egiten zen, eta ez dena delako *modernitate* zehazgabe horretaz.

Nire irudiko, modernitatearen kontzeptua, euskaldunen artean eta euskal kulturari dagokionez, azken hiru hamarkadetan zabaldu da

eta Europa mailako fenomeno baten ondorioa da (behintzat Europa mailakoa dela begitantzen zait, baina ziur aski mundu mailakoa da). Zerikusia du, lehenengo eta behin, azken hamarkadetan gure gizarte mendebalдарean unibertsitateak jokatzen duen paperarekin, esan nahi dut, unibertsitate mailako ikasketen hedatze sozial ikaragarriarekin, oraingo unibertsitateak masa-unibertsitateak baitira eta ez, II. Mundu Gerrara arte gertatu zen bezala, elite mehar xamar baten baranoa. Baina modernitatearen kontzeptuaren hedatzeak batez ere zer ikusia du Europako azken iraultzaren paraderoarekin, erran nahi baita, 1968ko gertakari soziopolitikoekin. Zaila da hiruzpalau lerrotan hain fenomeno zabalak eta konplexuak laburbiltzea, baina esan dezadan, berriz ere irakurlearen konplizitatea eskatuz, bi ohar aipatzeak aski izan beharko lukeela nire helbururako: bata, Europa osoa (eta munduko beste alderdi asko) inarrosi zituzten gertakariak, arrun-ki *68ko Maiatza* bezala laburbiltzen direla, eta bigarrena, gertakari horiek garrantzi berezia izan zutela unibertsitateetan. Beste modu batean esanda, data horretan Europak (munduak?) belaunaldi berri bat ikusi zuen gizarte antzokiaren eskenatokian lehen planoan betetzen: gazte unibertsitari iraultzaileak, haien eredu paradigmaticoa (euskaldunoi dagokigunez bederen), Pariseko unibertsitateetan 60ko hamarkadan (eta hurrengoan) bizi zen giroa zelarik. Euskaldunen artean, zer esanik ez, frankismoaren kontrako borrorak eta abertzale-atasun iraultzaile berri baten sorrerak panorama askoz ere konplexuagoa bihurtu zuen, baina esango nuke, funtsean, belaunaldi hori berdintsua dela Bilbon, Parisen, Pragan, Madrilen, Milanen, Mexikon, Kalifornian... Belaunaldi hori da, urte batzuk geroago, modernitatearen kontzeptua zabalduko duena, *gazte eta berde* zirelarik hitzetik hortzera zerabilten *iraultza* kontzeptuaren orde, hain zuzen ere.

Berriz ere, azkeneko aldiz, azpimarratu nahi dut ez dela nire asmoa modernitate kontzeptuaren kritika akademiko bat egitea, haren erabilera historikoaren gainean ohar bat paratzea baino, hauxe: aski da 60-70eko hamarkadetako euskaldun ikasle unibertsitarien testuak

irakurtzea, eta orduko elkarrizketak nolakoak ziren besterik gabe gogoratzea (ez baikara hain gazteak), *iraultza* eta topiko *iraultzaile* guztiak hitzetik hortzera aipatuak ikusteko; modernitateari buruz, berriz, esango nuke sasoi hartako testuetan nekezago izango dela erreferentziarik aurkitzea. Arretaz aztertu beharreko gaia litzateke, baina gaur eta orain, onar ezazue nire susmoa, une txiki batez baino ez bada ere. Kontua da 80ko hamarkadan zehar 68ko maiatzeko esperantza iraultzaileak poliki-poliki hondoratzen joan zirela, Bernardo Atxagaren txalupak egunerokotasunaren harkaitza jo zuenean bezala (irudi bereziki polit bat erabiltzearen) eta 1989ko Berlingo gertakarien ondoren, haizea guztiz aldatua datorrela, bereziki unibertsitateetan. Orduetik aurrera bai, zalantzarik gabe, tradizioa modernitatearekin errietan irudikatzen da, eta ez ordura arte bezala, iraultzaren kontrako borrokan, aurreko bi mendeetan euskaldunon artean aho batez egin zen bezala. Esanguratsuki, hamarkada bat lehenago beren buruak iraultzaile kartsu gisa aurkezten zuten hainbat, orain modernitatearen profeta eta predikazaile agertzen dira, kar berdinarekin gainera. Ez da fenomeno akademiko hutsa, bistan da, eta, halaber, ez da euskaldunen berezitasuna (berezitasunik egotekotan, beste nonbaiten ikusi beharko da, ez esperantza iraultzaileen akaberan, hori Europa osoan berdina izan da). Sasoi batean iraultzailea izan beharra zegoen, kosta ahala kosta; handik urte batzuetara, modernoa izan beharra dago, ororen buru. Aldaketa hori 80ko hamarkadan gertatu zen.

## **Frantziako iraultza handia**

Goiago esan dugu euskaldunon artean historikoki adostasun handia egon dela tradizioa zer den definitzeko orduan. Saia gaitzen orain adostasun hori zertan zen hobeto zehazten.

Frantziako Iraultza da Europako historiaren gertakari nagusia azken berrehun urtean, hori begi-bistako datua da, unibertsalki aitor-

tua. Gure gaurko gaiari dagokionez, esango nuke tradizioaren kontzeptua, ordutik aurrera eta ia gaur egun arte (vide supra), une historiko zehatz horretan sortu dela, eta Iraultza Handiaren ideiek eta gertakariak taxututako ideologia (*progresismoa*, labur eta baldar esanik) izan dela tradizioaren kontzeptuaren eta ideologiaren sortarazlea. Tradizioa Iraultzaren kontra sortu da (ez Modernitatearen kontra, hori geroagoko kontzeptua da). Edo, nahiago bada, Europa osoko intelektual eta politikari ugariak, Iraultza Handiaren ganako gorroto bizitiki abiatuz, haren kontrako ideologia oso bat (mundu ikuskera bat, nahiago bada) sortu zuten, eta horren baitan Tradizioak leku berezi bat hartu zuen. Beste modu batean esanda, 1789tik aurrera Europako politikariak eta intelektualak argi eta garbi bitan banatu ziren: progresistak eta progresismoaren kontrakoak (hizkera marxista klasikoa, erreakzionarioak); euskaldunen artean progresismoaren kontrakoek beherala Tradizioaren defentsa hartu zuten ikurtzat eta, sarritan, *tradizionalista* gisa aurkeztu ziren.

Garbi dago goiko paragrafoan marraztu den koadroa Historiaren hipersimplifikazio bat dela: milaka eta milaka ñabardura sartu beharoko genituzke, bai Europa osoari dagokionez, bai euskaldunen baitan geratzen bagara ere. Historia beti da bihurria, ñabardura, kontraesan eta paradoxaz betea. Baina zilegi bekigu goiko marrazkia bere baldartasunean onartzea, hasieratik aipatu dugun ideia bat azpimarratzeko balio baitigu: tradizioaren kontzeptua borroka sozial zehatz batzuen ondorioz sortzen da, ez eraikuntza intelektual huts gisa. Ondorioz: tradizioaren alde egingo duten mota guztietako idazle, musikari, ikerle, politikari edo apaizak, Euskal Herrian behintzat ez dira izaten intelektual hutsak, zinezko aktibistak baizik, dela kulturean, dela politikan, dela gizartean, dela hezkuntzan, dela erlijioan... Euskaldunen artean tradizioa inbokatzea ekintza militantea izan da beti (edo ia beti), gehienetan progresismo mota ororen aurkako aktibitate militantea. Zeren, hau ere gauza jakina eta unibertsalki onartua da, Euskal Herria, Europa mailan, indar erreakzionarioen feudo bat izan da,

bai Iparraldean, bai Hegoaldean. Eta egia ez bada ere Euskal Herrian progresistarik egon ez denik, edo gutxi izan direnik, bereziki azpimarratu beharra dago progresista ia guztiek, ia aho batez, euskararen abandonoa predikatu dutela hitzez eta ekintzez, ahal izan duten guztietan. Euskararen alde jo dutenak, berriz, tradiziozaleak (antiprogresistak) izan dira, ia salbuespenik gabe. Bitasun hau Frantziako Iraultzaren denboran sortu zen, orduko gertakarien harian, eta behintzat Espainiako Gerra Zibileraino iraun du, orokorrean.

Baieztapen gaitzak egin ditugu eta ez dugu astirik horiek banan-banan oinarritzeko. Esan dezagun, bakarrik, 1789-1795 bitarteko gertakariak ikertzea, gaingiroki bada ere, aski dela marraztu dugun koadroaren azalpide batzuk aurkitzeko.

### **Luis XVI.a, Frantziako eta Nafarroako erregea**

Frantziako Iraultza esperantza ia unibertsal batez lagundurik abiatu zen eta egundoko desengainu eta triskantza artean bururatu. XVIII. mendeko Frantzia krisialdi larrian murgildurik zegoen erresuma bat zen. XVII. mendearen bigarren erdia, jakina denez, Frantziaren gorakada politiko eta diplomatikoaren urrezko aroa da; XVIII. mendea, aldiz, potentzien arteko *orekaren* mende klasikoa da, baina Frantziarentzat etengabeko umilazio eta frustrazioen iturri: aliantza diplomatikoen honuntza edo haruntza jotzen badute ere, formula desberdinak asmatuz eta frogatuz, eta triunfo partzialak gorabehera, ez du lortzen bere burua Europako potentzia nagusitzat afirmatzea. Gerra ugarietan eragindako gastuek, berriz, ondorio negargarriak dituzte barne-ekonomia gero eta ahulago batean. Paraleloan, klase merkatari eta burges berri bat etengabe hazten doa, erresumaren administrazioan eta, areago, botere politikoan ere, bere lekua eskatuz, gero eta ozenago. Baina alperrik: noblezia ez dago prest kontzesiorik minimoena ere egiteko, eta larriagoa dena, krisialdi ekonomikoak

kolpatzen duenean botere politikoaren kuota handiagoak exijitzea izango da bere proposamen bakarra. Behean herria dago, landa eta herrixketako nekazari gero eta pobreagoak, aldian-aldian gosete larriak pairatzen, edo hiri eta hirixketako artisauak, gero eta ugaria-goak baina gero eta miserableago bizi direnak, hazkunde ekonomikoaren palankak noblezia zital eta zikoitz batek paralizatzen baititu. Mendeak aurrera egin ahala gizartearen sektore guztietan haserrea pilatzen da, gero eta astunago, gero eta ozenago, eta bitartean klase intelektual berri bat sortu da, mota guztietako erreformetarako ideia berri eta ausartak plazaratzen dituena (*Argiak, Ilustrazioa*), oihartzun zabala lortuz, baina emaitza praktiko gutxi.

Sistema osoaren bihotzean, edo piramidearen erpinean, nahiago bada, erregea dago. Ez da egia, sarritan sinplekeria nabarmen batez esaten den bezala, Frantziako erregeak botere absolutua zuenik (ñabardura asko egin beharko lirateke hemen), baina bai egia da bera gabe ez dagoela aldaketa posiblerik; beste hitz batzuetan esanda, sistema horretan erregea da edozein aldaketa, edozein zentzutan, bidera dezakeen bakarra; gainetiko agente politikoek ezin dute ezta iniziatibarik hartu ere. Tamalez, dela bere izaera zalantziagatik, dela gizartearen kontraesanek beste soluziobiderik ez zutelako, Luis XVI.a ez da gai izango aldaketa baketsu (gutxi-asko baketsu) bat bideratzeko: iraultza erabatekoa izango da, eta eztanda-serie luze eta odoltsu baten forma izango du. Europar asko eta askoren begietan, hondamendi kosmiko bat.

Arazoak arazoen gainean pilatzen zirelarik, eta irtenbiderik ez, 1789an erregeak erabaki handi bat hartu zuen: erresumako Estatu Orokorrak deitzea Parisera, hots, argi eta garbi erresumaren erreforma handi eta sakon bati ekitea, horretarako antzinako erakunde bat berpiztuz. Gorago esan dugun bezala, hasiera batean erabaki horrek egundoko esperantzak piztu zituen: posible zen erreforma bat egitea, eta prozesu hori erregeak berak gidatuko zuen. Baina berehala ikusi

zen pilatutako gaitzek ez zeukatela aterabide errazik: borroka politiko moteldu beharrean gero eta indar handiagoa hartu zuen, espiral baten forma hartuz. Erregea bera, prozesu osoan, zalantza eta kontraesanez bete agertu zen: presio latzak pairatzen zituen alde guztietatik eta ez zen gai erreforma kontrolatzeko; agian, nortasun sendoago bat izanik ere, eta ideia garbiak, ezinezkoa gertatuko zitzaion, baina goraka zetorren burgesia berriarekin eta haren bozeramaile *ilustratuekin* guztiz bat egiteko uzkur eta beldurti, finean noblezia kontrairaultzailearen besoetara jaurti zen, bere hilobia zulatuz. 1793ko urtarrilaren 21ean lepoa moztu zioten; urtea bukatu baino lehen, urrian, beste horrenbeste egin zioten erreginari, Marie Antoinette xarmangarri bezain gorrotuari. Beren semea eta, beraz, formalki errege berria zena (Luis XVII.a) gartzelan hil zen, 1795ean, artean mutiko bat zela. Beste hogeitatu urte pasatu behar izan zuten, Europa osoa etengabe gerra ezin odoltsuagotan itota, berriz ere Borbon bat Parisen errege ikusi ahal izateko (Luis XVIII.a, XVI.aren anaia eta XVII.aren osaba), baina dinastia berak ez zuen luze iraun (1830ean abdikatu zuen Karlos X.ak, Luis XVI. eta Luis XVIII. anaiak) eta, ezagun denez, 1870ean Frantziak behin betiko utzi zion monarkia izateari, bidean beste bi dinastia geratu zirelarik (Orleansdarrak eta Bonapartetarrak).

Baina gera gaitezen 1793. urte gogoangarri hartan, erregearen auzipetze eta exekuzioarekin zabaldu zen urte izugarri hartan. Iraultzaren urte gako da, alde guztietatik erasorik, kanpotik zein barrutik, kinka ezin larriagoan egon zen urtea, kontzeptu politiko berri baten sorrera ekarri zuen urtea, *Terrorea*, Vendée-aren genozidioaren urtea, halaber. Odoletan suntsitua izateko arrisku bizian egon eta gero, Iraultzak aurrera egitea lortu zuen, Europako monarkia guztien kontra, eliza guztien kontra, barne-altxamendu eta errebolta guztien kontra, oposizio mota oro odoletan itoz, erruki gabe. Odola eta gerra, gerra eta odola, eta, ororen buru, gillotinarene itzal luzea. Ilustrazioaren ideal humanista guztien izenean (*Gizakiaren eta Hiritarren Eskubideen Adierazpena*, 1789ko abuztuaren 27a), krimenik izuga-

rrienak burutu ziren. Bai, Iraultzak aurrera egitea lortu zuen, baina bidean haren sinesgarritasuna zaurituta geratu zen Europako iritziz publikoaren sektore zabal-zabalen artean. Aurrerantzean, eta belau-naldiz belaunaldi, 93ko krimenak guztiz blaituko dute edozein proiektu *progresista*, europar asko eta askoren begietan. Horien artean, euskaldunak, eta ez gutxi. Horra tradizioaren goramenaren habia.

1789an, Estatu Orokorrak deitu zuenean, Luis XVI.ak bere burua izendatzeko ondoko tituluak erabiltzen zituen: Frantziako eta Nafarroako erregea (*roi de France et de Navarre*). Handik gutxira Errepublika Bat eta Banaezina aldarrikatu zen, eta *federalismoa*, hots, Errepublikaren egitura hiperzentralista zalantzan jar zezakeen edozein ekinbide, heriotza-zigorrez erreprimitu beharreko krimen politikoa bihurtu zen. Jakobinismoaren erabateko garaipena izan zen. Gaur egun ere, funtsezko kontzeptu politiko horiek ez dira asko aldatu Frantzian. Izan ere, Thiersek behin esan zuen bezala, *iraultza era berean izan zen filosofikoa eta politikoa* (575. or.), eta, beraz, uniformetasunaren aldeko grina maila guztietara hedatu zen, dela administrazio zibila, dela administrazio erlijiosoa, dela administrazio militarra, dela hizkuntza, dela pisuak eta neurriak, dela egutegia bera ere: kasu guztietan Parisetik uniformizazio eta arrazionalizazio absolutua jarri zen indarrean.

Baina ezin gara xehetasunetan luzatu; aski bekigu errepikatzea 1793ko gertakarien oroitzapenek Iraultzaren irudi topiko bat moldatu zutela, eta horrek belaunaldiz belaunaldi iraun zuela europar askoren gogoan. Ondoko atalean irudi horietako batzuk aztertuko ditugu. Gure ustez garrantzi berezia izan zuten bi hautatu ditugu, baina ez dira bakarrak.

## **Erliijoaren afera eta gillotina**

Beti mota guztietako teoriak plazaratu ahal badaitezke ere, eta plazaratzen dira, zenbait historialariren iritziz erliijoaren afera bereziki

garrantzitsua izan zen Iraultzaren garapenean. Izan ere, aipatu dugu gorago Luis erregea hasieratik oso zalantzati agertu zela Iraultzaren aurrean: Estatu Orokorrak deitu zituen, bai, baina duda-mudatan egon zen haren ahalmen erreformatzailea ontzat emateko eta azkenean hautetsiek iraultzaren bidea hartu behar izan zuten (*Pilota Lekuko Zina*); ondoren erregeak ontzat eman zuen bere boterea sakonki mugatzen zuen Konstituzioaren bidea, baina etengabe agertu zen uzkur Asanbladaren hainbat dekretu ontzat emateko orduan, horrela erregimen berriari zion atxikimenduari buruzko etengabeko susmoak piztuz; herritar gehienek aurrean erregea ez zen fidagarria, aukerarik txikiena baliatuko baitzuen Iraultzari traizio egiteko, eta hori, gainera, neurri handi baten gertatzen omen zen (iritzi publikoaren aurrean, berriz diot) erregina gaizto baten eraginpean zegoelako; onenean, borondate ahuleko gizontxo bat zen, Gorteko pertsonaia ilun batzuek txotxongilo baten moduan erabiltzen zutena, erregina buru. Jakina, ez da erraza erregearen jokaera zalantzati horren egiazko arrazoiak zeintzuk ziren ebaztea, baina badirudi erlijioari dagokionez gauza bat dela zalantzagabea: Luisek sinismen pertsonal sakona zuen, fededun egiazkoa zen, hitzaren zentzu estriktoan, eta zalantza bereziak zituen erlijioari ukitzen zioten dekretuak onartzeko orduan.

Kontrairaultzaileen artean gerora hedatu zen irudi topikoaren aurka, ez dago arrazoirik pentsatzeko Frantziako Eliza Iraultzaren kontra jarri zenik hasieratik. Aitzitik, oinarriko apez eta kleriko gehien-gehienak erreforma sakon baten alde zeuden, eta, halaber, erreformaren alde zeuden apezpikuen arteko asko. Erreforma hori estatuaren erreforma orokor baten baitan ikusten zen. Horregatik, Iraultza abiatu zenetik Elizaren sektore oso zabalen laguntza izan zuen eta, notagarria dena, hainbat eta hainbat iraultzaile ilustre apaizak ziren (Sieyès, Gregoire, Talleyrand...). Baina hasierako esperantzak zapuzten joan ziren dekretu berriak sortu ahala eta Eliza barruko jatorrizko zatiketa gero eta nabarmenagoa bihurtu zen. Prozesuaren bukaeran Eliza Katolikoa erabat eta osoki antiraultzaile deklaratu da, Irault-

tza osoa konspirazio demoniako baten ondoriotzat joz, baina urte batzuk behar izan ziren ondorio horretara ailegatzeko.

Bihurgunearen hasiera 1790eko uztailaren 12an izan zen, orduan onartu baitzen *Klerikoen Konstituzio Zibila*. Lege horrek hainbeste amestutako erreforma gauzatu zuen eta, hasieran, ez zuen berebiziko oposizioarik sortu, baina erregea bera, Elizaren zenbait sektoreen laguntzaz edo eraginez, hura ontzat emateko uzkur agertu zen, eta abendura arte ez zuen onartu. Bitartean, Eliza barruko sektoreen arteko urrunketa gero eta handiagoa suertatu zen, batzuk argi eta garbi alde paratuz, beste batzuk aurka. Azpimarratu beharra dago lege horren arabera Erromako Aita Santuaren agintea guztiz kolokan geratzen zela eta, aldiz, kleriko guztiak estatuaren funtzionarioak bihurtzen zirela, harekiko dependentzia osoan. Horrez gain, egoera politikoa okertu ahala, estatuak erreakzionatu zuen apez guztiei atxikimenduzko *zina* exijituz (“à la nation, à la loi et au roi”, 1790eko azaroa). Gauzak horrela, apezak bitan banatu ziren: *zin* egin zutenak eta *zin* egiteari uko egin ziotenak. Ez dirudi bi sektoreen arteko harremanak etsaitasunezkoak zirenik hasiera batean baina, berriz ere diogu, egoera politikoa okertu ahala jarrerak gogortuz joan ziren. Aita Santuak, bere aldetik, apirilean argi eta garbi kondenatu zuen *zina* (bide batez, baita ere *Gizakiaren Eskubideen Adierazpena*) eta, ondorioz, *zin* egindako apez eta apezpiku asko erretraktatu egin ziren. Dadoak jaurtiak zeuden. Hortik aurrera *zinpeko apaizak* gero eta gehiago urrundu ziren Erromako ortodoxiatik (horietako asko ezkondu egin ziren) Iraultzarekin bat eginez, baina herritar xumeen sektore zabalen artean Iraultzarekiko etsaigo nabarmena piztu zen, *benetako apaizek* jasaten zuten pertsekuzioaren ondorioz. Gorago esan dugun bezala, Iraultzaren bihurgune bat izan zen: sostengu zabala galdu zuen eskualde askotan (adibidez, Euskal Herri gehiengan, nahiz ez guztian) eta, batez ere, Eliza osoaren erabateko etsaigo iraunkorra: hortik aurrera zaila izango da katoliko iraultzazalerik aurkitzea Europan, behintzat 1960ra arte (beti bezala, sinplifikatzen ari garela azpi-

marratzen dut). Euskal Herria bezalako lurralde bereziki katolikoe-tan, *progresismoa* populazioaren sektore txiki batzuetan gerizatu zen eta, jakina, euskaltzale gutziz gehienak katoliko sutsuak zirenez gero, Iraultzaren desmasiak oso present izango dituzte beti.

Baina azalpide historiko sintetikoek sarritan ez dute irudi osaturik eskaintzen. Errepara diezaiegun gauza konkretu batzuei. 1793an gaude, Parisen, eta argigarria izan daiteke orduko giroa zein zen dastatzea. Nazio osoa armetara deitua, (*levée en masse*, 93ko abuztua), historia modernoan aurrekaririk ez duen erabateko diktadura ezartzen da, alde guztietatik eraso den Iraultza salbatzeko. Udazkenean, entusiasmo iraultzailea bere gorengo puntuan dago, *Terrorea* deitu izan den epearen erdi-erdian. Guillotinaren urrezko aroa da, epaitegi bereziek 14.000 lagun kondenatuko dituelarik kontrairaultzaile akusazio-pean; urrian lepoa moztu diote erregina txit gorrotatuari eta, bi aste geroago, Iraultza oraindik ere nolabaiteko moderazio *federalista* baten bidetik gidatu nahi zuten lider girondinoei (une horretan konsagratzen da Frantziako hiperzentralismoa). Iraultzaileak ziren, baina, nonbait, ez aski iraultzaile. Marseillesa kantatzen abiatu ziren urkaberak. Handik hilabete gutxitara, eta 94ko uztailera arte, txanda desberdinetan segituko diete gainetiko lider iraultzaileek, besteak beste, jakobinoek (Danton, Robespierre, Saint-Just...). Guillotinak ez du atsedenik: abenduan hasita, bi hilabetean 6.000 lagun exekutatzen dira. Une honetan egiten du Barère-k frantsesa ez den hizkuntza guztien kontrako hitzaldi sarritan aipatua: *le fanatisme parle basque* (1794ko urtarrila). Zoramena da, erabateko zoramena. Eta puntu honetan giroa zertan zen ikusteko, erlijioaren gaira lerratuko gara, euskaldunentzat hain garrantzitsua zen puntura. Azaroaren 7an Konbentzioa gertakari berezi baten testigu izan zen, Gobel Pariseko apezpikuaren dimisioa. Thiersen aipu luze bat egingo dugu:

El 17 de brumario (7 de noviembre de 1793) Momoro, Pache, Lhuillier, Chaumette [lider iraultzaile muturrekoak], Gobel [Parise-

ko apezpikua, hots, Frantziako nagusia] y todos sus vicarios se dirigieron a la Convención. Chaumette y Lhuillier, procuradores ambos, uno del municipio y otro del departamento, anunciaron que el clero de París acudía a rendir a la razón un homenaje espléndido y sincero. Entonces presentaron a Gobel, quien cubierto con el bonete rojo [iraultzaren sinboloa] y sosteniendo con la mano la mitra y el báculo, luciendo la cruz y el anillo, tomó la palabra:

—Nací plebeyo, fui cura en el Porentruy, luego mandome mi curato a la primera asamblea y después eleváronme al arzobispado de París; en todo este tiempo jamás he dejado de obedecer al pueblo. He aceptado cargos que este pueblo me ha confiado, y en el día de hoy le obedezco también al venir a entregarlos. Fuí obispo cuando el pueblo quería obispos, y dejó de serlo ahora que el pueblo no los quiere.

Añadió Gobel que los sacerdotes que de él dependían, animados por el mismo sentimiento, le encargaban que hiciera en su nombre igual declaración. Al acabar estas palabras, entregó la mitra, la cruz y el anillo. El clero de París ratificó la declaración.

[...]

Varios obispos y curas, miembros de la Convención, siguiendo este ejemplo, entregaron sus títulos o abjuraron el catolicismo. Julien de Tolosa también abdicó en su calidad de ministro protestante.

[...]

Todas las iglesias quedaron despojadas, y los municipios mandaron diputaciones con el oro y la plata acumulados en los nichos de los santos, o en los lugares consagrados por una antigua devoción. La gente se dirigía procesionalmente a la Convención, y el pueblo, entregándose a sus gustos burlescos, parodiaba de la manera más rara escenas religiosas, encontrando ahora tanto gusto en profanarlas como antes en celebrarlas. Hombres vestidos con sobrepellizas, casullas y capas pluviales acudían cantando aleluyas y bai-

lando la carmañola al estrado de la Convención, depositaban en él las custodias, los crucifijos, los santos copones, estatuas de oro y plata, pronuniaban burlescos discursos, y frecuentemente se dirigían a los mismos santos las más singulares alocuciones.

[...]

Después desfilaban ante la Convención, cantando aleluyas y bailando la carmañola; conducían los ricos despojos de los altares a la casa de la Moneda, y depositaban los bustos venerados de Marat y Lepelletier [lider iraultzaile hilak] en las iglesias que habían llegado a ser desde entonces templos del nuevo culto.

Por iniciativa de Chaumette se decretó que la iglesia metropolitana de Notre-Dame se transformaría en edificio republicano, llamado *Templo de la Razón*; se instituyó una fiesta para cada década [asteak hamar egunekoak ziren, urte bereko erreforma iraultzaile baten ondorioz], en substitución de las ceremonias católicas del domingo. El alcalde, los oficiales municipales y funcionarios públicos se dirigían al Templo de la Razón, donde leían la declaración de los derechos del hombre, así como el acta constitucional, haciendo después el análisis de las noticias procedentes del ejército [...]

(Thiers, 580-582 or.)

Nahikoa luzatu da aipua, eta ez dugu detaileak ematen segitu nahi. Kontura gaitezen egoerarekin: apaiz xume bat, Godel, hautatua izan zen lehenengo eta behin Estatu Orokorretan parte hartzeko; erreforma iraultzaileen ondorioz Pariseko artzapezpiku izatera ere iritsi zen, hots, Frantziako elizaren agintari gorena, baina, zurrunbiloan harrapaturik, uko egin zien bere kargu eta botere guztiei, solemneki, Konbentzioaren aurrean. Haren atzetik beste hainbat eta hainbat apaiz eta apezpiku, guztiek Iraultzarekin guztiz bat eginez eta Eliza ofizialarekin (Erromako Aita Santuarekin) apurtuz. Herri xeheak, bere aldetik, elizak okupatu eta zelanbaiteko erlijio berri baten tenplu bihurtzen ditu, txantxa, sakrilegio eta diskurtso filosofikoen artean.

Hori guztia, gillotina jo ta ke lanean ari den une berean. Bide batez, beste lider iraultzaile asko bezala, Godel ere handik gutxira gillotinatu zuten, traizioaz akusaturik.

Benetan, ez da harritzekoa irudi horiek sakon-sakonki grabatuta geratzea mota guztietako katolikoek oroitzapen kolektiboetan eta Iraultza bera, hasiera batean esperantza ia unibertsalak piztu zuen hura berbera, une batetik aurrera konspirazio demoniako baten ondorioa bihurtzea.

Eta horixe da hain zuzen ere nire proposamena: nolako eragina ez zuten izango gertakari hauek hurrengo bi mendeetan intelektual euskaltzaileen gogoetetan, kontuan izanik gehienak fededun kartsuak zirela? Zer ote zen eurentzat *progresoa*, ez bada gertakari hauek (eta antzeko beste askok) eragindako oinaze, kezka eta amorrua? Tradizioa defenditzean, beraz, euskararen alde jokatzeko, naski, lehenengo eta behin Iraultzaren aurka paratzen ari dira, hau da, gizartea erabateko hondamendira gidatu nahi duen gutxiengo sasiakintsu, nahastaila eta, finean, gaizto baten aurka. Zeren Gizakiaren Eskubideen Adierazpen arranditsuaren atzean horixe besterik ez baitute ikusiko, gillotinarekin itzala. Euren iritziz tradizioaren alde egitea, euskara barne, ez da izango teoria abstraktu bat eztabaidatzea, errotik politikoa den arazoa baizik. Kontuan izanik, gainera, Iraultza fenomeno europarra dela, handik aurrera aldiro-aldiro errepikatuko dena bazter guztietan; 1917tik aurrera, gainera, mamua oraindik errealagoa eta mehatxugarriagoa bihurtzen da.

## **Jakobinismoa eta genozidioa**

Indar handia egin dugu erlijioaren aferan, garrantzi berezia baitu euskaldunen kasuan, baina bada beste arazo handi bat ere, horrekin estuki lotua, euskaldunentzat ere munta bereziko: Frantziako probintzia edo eskualde orotako berezitasun guztien ezabatze absolutua,

sasoi horretan (zuzen edo oker, azalpen luzeak eman beharko lirateke) *antzinako erregimena* edo, baita ere, *federalismoa* etiketaren bidez ezaugarritzen zena. Gorago esan dugun bezala, Pariseko iraultzaile erradikalentzat (jakobinoentzat), federalismoa Iraultzaren adar moderatuaren (girondinoen) ideologia zen eta, ondorioz, traizioaren sinonimoa, jakobinoak guztiz eta erabat zentralistak baitziren. Testuinguru honetan Frantziako eskualde bat, *La Vendée*, Pariseko gobernu berriaren kontra armetan altxatu zenean (1793ko martxoa) girondinoen eta jakobinoen arteko lehia politikoak goia jo zuen eta errepresio ezinago basatia deskateatu zuen: historialari batzuen ustez, zinezko genozidioa. Kontua da eskualde horrek (Bretainiatik gertu dagoenak) antzekotasun handi-handiak dituela Euskal Herriarekin. McPhee-ren aipu luze bat egingo dugu, bere horretan aski argigarria izango delakoan:

A principios de 1793, la retórica girondina sonaba cada vez más hueca en el contexto de la crisis militar externa, y la mayoría de los diputados de la “Llanura” empezaron a secundar las propuestas de emergencia de los jacobinos. La Convención respondió a la crisis ordenando la movilización de 300.000 reclutas en el mes de marzo. Este reclutamiento se puso en práctica fácilmente en el sureste, en el este—dos regiones fronterizas—y en los alrededores de Paris. En el oeste provocó una multitudinaria insurrección armada y una guerra civil, conocida con el nombre de la región en la que se produjo, “la Vendée”. [...] Todavía hoy sigue dividiendo a los historiadores: para algunos, la represión de la rebelión fue comparable a un “genocidio” mientras para otros fue una reacción lamentable pero necesaria ante una “puñalada por la espalda” propinada en el momento de mayor crisis revolucionaria.

[...]

Los republicanos despreciaban a los rebeldes por ser campesinos ignorantes y supersticiosos bajo el dominio de sacerdotes “fanáticos”. A su vez, el lema de los insurgentes ponía de manifiesto su

apoyo a los “buenos sacerdotes” como esencia de un modo de vida amenazado, y su odio hacia los burgueses.

[...]

En un principio la Vendée no fue ni contrarrevolucionaria ni antirrevolucionaria: la revolución, tan ansiada al principio, no había traído consigo más que problemas. [...] Para los rebeldes, el alcance de las represalias—que algunos historiadores describen, de forma incorrecta, como “genocidio”—reforzaba la imagen sangrienta de París que durante siglos posteriores perduró en numerosas zonas rurales.

Por último, la guerra civil acabaría exigiendo la atroz cifra de 200.000 vidas de cada uno de los bandos, tantas como las de las guerras externas de 1793-1794. La crudeza de la lucha en momentos de crisis militar nacional alentó una terrible represión: cuando el general Westermann informó a la Convención en diciembre de 1793 que “la Vendée ya no existe”, admitió que “no hicimos prisionero alguno: habría sido preciso darles el pan de la libertad, y la piedad no es revolucionaria”. Entre diciembre y mayo de 1794, tras aplastar la insurrección, “las columnas infernales” del general Turreau llevaron a cabo una venganza de “tierra quemada” en 773 comunas declaradas fuera de la ley. Informó al ministro de la guerra que todos los rebeldes y presuntos rebeldes de cualquier edad y sexo serían ajusticiados: “todos los pueblos, granjas, bosques, páramos, todo lo que pueda arder, será incendiado”. Se ha calculado que en estas comunidades murieron unas 117.000 personas (el 15% de la población). (McPhee, 132-135 or.)

Jakina denez, Euskal Herrian ere Konbentziaren armadak neurri errepresibo latzak hartu zituen baserri giroko hainbat gunetan, baina ez ziren izan inola ere Vendée-an hartu zirenen parekoak. Dena den, datu zehatzak baino gehiago orain axola diguna da euskaldunen oroitzapen kolektiboan gertakari horiek utzi zuten arrastoa, belaunaldiz belaunaldi (McPhee-k azpimarratzen duen bezala). Garbi dago

jakobinoak prest zeudela Parisen erabateko hegemonia eta uniformizazioa ezartzeko, edozein neurriren bidez, hilketa masiboak uko egin gabe (errepara dezagun Paris eta inguruetan 14.000 lagun gillotinatuz bazituzten ere, Vendée-n 200.000 hil zituztela, erdiak baino gehiago garaitzpen militarren ondoren). Aski da Balzac-ek edo Victor Hugok Vendée edo Britainiari buruz idatzitako nobelak irakurtzea konturatzeko hantxe daudela pittin bat geroago karlistak ezaugarritzeko erabiliko diren topiko literarioak. Nire proposamena da paralelismo horiek oso present egon izan direla intelektual euskaldunengan (bai progresistak, bai tradizionalistak) eta, berriro ere, tradizioa zer den definitu nahi izan denean, Parisetik datozen armada iraultzaile basati eta odolgoseen aurkako defentsa egitea izan dutela gogoan, eta ez *modernitate* abstraktu bat. Aldez edo moldez, eta ñabardura asko eginez, jakina, baina Vendée-ko gerra, sakonean, oso erreferentzia beharrezkoa da euskaldunek hurrengo bi mendeetan izango duten pentsaera nola taxutu zen ulertzeko.

### **Azken hitza**

Testu hau ez da artikulu akademiko bat, ohar huts bat baizik. Ohar bat gauza bakar bat erakusteko (*erakutsi*, besterik ez, zeren gehiegi litzateke esatea eman ditugun datuekin ezer *frogatu* dugunik), lehendik ere denok dakigun gauza bat, alegia, 1789tik aurrera Euskal Herriko intelektual eta politikoak bi talde nagusitan banatzen direla eta, salbuespenak salbuespen eta ñabardurak ñabardura, soilik talde batekoek eskaintzen diotela zinezko sostengua euskarari; besteentzat, asko jota arretaz ikertu eta museoetan kontserbatu beharreko hizkuntza izango da, progresoak denboraren poderioz desagertaraziko duena. Tradiziozaleek, berriz, eutsi nahi izango diote, baina gehienguan ez berez duen balio autonomoagatik, borroka politiko askoz ere zabalago baten baitan baizik. Borroka hori, hain zuzen ere, da 1789an abiatzen dena. Tradizioa zer den ulertzeko, beraz, garrantzi-

tsua da oinarrizko datu hori bistatik ez galtzea, teoria konplexuagoe-tan (adibidez, modernizazioari buruzkoan) integratu badaiteke ere. Zeren ez dezagun ahantz gertakari zehatz batzuk direla beren itzala proiektatzen dutenak, ez teoria hutsak.

## Erreferentzia bilduma laburra

Iraultza Handiaren ikuspegi orokor baterako hauxe da segitu dudan sintesi lana: McPhee, Peter [2002], *La Revolución Francesa, 1789-1799. Una nueva historia*, Barcelona: Crítica, 2007. Baina Iraultzari buruz dauden monografia eta sintesi lan ugarien irakurketaz gain, nire ustez garrantzi berezia du orduko gertakariak kazetari-estiloan ere segitu ahal izateak, horretarako Thiers-en liburu klasikoa gomendatzen dudalarik; edizio eta itzulpen ugari izan ditu, hauxe delarik artikulua hau idazteko neuk kontsultatu dudana: Thiers, Adolphe [1827], *Historia de la Revolución Francesa*, Barcelona: Petro-nio, 1973.

Historiako liburuez gain, orduko giroa dastatatzeko eta Iraultza Handiak idazle, intelektual edota irakurle arruntengan ere eragindako imaginario kolektiboa zertan den arakatzeko bi nobela hauek iru-ditzen zaizkit bereziki gomendagarriak: Balzac, Honoré de [1829], *Les Chouans*, Paris: Presses Pocket, 1990, eta Hugo, Victor [1873] *Quatrevingt-Treize*, Paris: Presses Pocket, 1992.

Euskal Herriari dagokionez, bi lan baino ez ditut aipatuko. Lehe-nengoa, Manex Goihenetxek frantsesez idatzi zuen Historia handiaren laugarren tomoa: Goihenetxe, Manex [1998-2005] *Histoire générale du Pays Basque*, T. IV. *La révolution de 1789*, Donostia : Elkarlanean, 2002. Horren osagarri bezala Iraultza eta euskal literaturari buruz egin-dako jardunaldi batzuen bilduma ere bereziki gomendagarria da: *La révolution française dans l'histoire et la littérature basque du XIXème siècle : actes du Colloque International de l'URA 1055 du C.N.R.S. (Uni-*

versité Michel de Montaigne - Burdeaux III) tenu à la Faculté Pluridisciplinaire de Bayonne les 28 et 29 juin 1993— St Etienne de Baïgorry : Izpegi, L.G. 1994. Hauxe da bilduma horren edukiaren zerrenda: *De l'histoire à la littérature: l'épisode de "Joanis" et le chant des soldats de Baïgorry dans le "Peru Abarca" (1802) de Juan Antonio Moguel* / J.- B. Orpustan - *Euskaltzaletasunaren formulazio politikoa kontrairaultzaren moldetan Bilbon XIX mendearen lehen hamarkadetan* / J. Agirreazkue-naga - *Les documents recueillis lors des enquêtes linguistiques en Pays Basque durant la période révolutionnaire et le Premier Empier* / B. Oyharçabal - *Euskal idazleen bertsoak bigarren errepublikaren gainean (1848-1851)* / P. Urkizu - *Augustin Chaho et la Révolution française* / E Zubillaga - *Deux cas historiographiques des guerres de la Convention: l'évacuation des communes du Labourd et l'exécution de Madeleine Larralde* / J. Goyhenetche - *Idéologie pro- révolutionnaire et poésie: le "Lehen eta orai" de J.- B. Elissamburu (1879)* / J.- B. Orpustan - *Michel Elissamburu-ren "Frantziako hirur errepublikaren ixtorioa laburzki" (1890)* / I. Casenave - *Le centenaire de la Révolution française dans "l'Euskalduna" (1889-1895)* / J. Haritschelhar - Documents annexes: I. *Iraultza Heletan* / C. Arbelbide - II. *Chants des combattants révolutionnaires* / J.- B. Orpustan - III. *Documents sur l'internement des Labourdins et Madeleine Larralde* / J. Goyhenetche - IV. *Jean Baptiste Elissanburu: "Lehen eta orai"* / J. B. Orpustan.

Bi liburu horietaz gain, bereziki aipagarria da Gratian Adema *Zaldubi* (1828-1907) euskal idazlearen mendeurrenaren kariatara Senperen ospatutako jardunaldi batzuetan (2007ko abendua) Jean Haritxelharrek egindako maisu-hitzaldia, euskaldunen artean azken bi mendeotan izandako gorabehera ideologikoak labur bezain sakon (eta airos) aztertu zituelarik. Espero izatekoa da laster argitaratzea *Euskera* agerkarian.

Eta ildo beretik, XX. mendeko 60-70etako gazteen artean zegoen giroa dastatzeko, irakur bitez sasoi hartan gazte iraultzaileak ziren

hainbat lagunen oroitzapen-liburuak, adibidez, hauek: Iriarte, Joxe (“Bikila”), *Borrokaren gorrian*, Tafalla : Txalaparta, 1999; Onaindia, Mario, *El precio de la libertad : memorias (1914-1977)*, Madrid : Espasa Calpe, 2001; Juanena, Agurtzane, *Esan gabe neukana*, Donostia : Elkarlanean, 2003; Goikoetxea, Jose Ramon (“Ardotxi”), *Mentxakaren aitorpena*, Donostia: Elkarlanean, 2006. Erraz antzemango da bi hamarkada horietan Euskal Herriko arazoei buruz hitz egiteko nagusi zen terminologia eta 80etatik aurrerakoetan nabaritzen den aldaketa.